

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN SEGURTASUNA

Gasteizen lur azaleko aparkaleku arautuko txartelak saltzeko makinak onik zaindu, laguntza teknikoa eman eta diru-bilketa egiteko lehiaketa

2016ko urriaren 14an onetsi zen 2016/CONASP0358 zk. duen kontratazio-dosierra, lurreko aparkaleku arautuko txartelak saltzeko makinak onik zaindu, laguntza teknikoa eman eta diru-bilketa egiteko.

1. Esleitzen duen toki-erakundea.
 - a) Erakundea: Vitoria-Gasteizko Udala.
 - b) Dosiera izapidetzen ari dena: Herritarren Segurtasuna.
 - c) Dosier zenbakia: 2016/CONASP0358.
2. Kontratuaren xedea.
 - a) Xedearen deskribapena: Gasteizko lur azaleko aparkaleku arautuko txartelak saltzeko makinak onik zaindu, laguntza teknikoa eman eta diru-bilketa egitea.
 - b) Kontratu mota: zerbitzuak.
 - c) CPV kodea: 50316000Txartelak saltzeko makinak onik zaindu eta konpontzea
 - d) Aldaerak onartzea:
ez da egokia.
3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.
 - a) Izapideak: ohikoak.
 - b) Prozedura: irekia.
 - c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: bai.
 - d) Gauzatzeko epea: bi urte
 - e) Luzapena: bi urtekoa.
4. Kontratuaren kopurua edo luzapena:
 - a) Aurrekontua, BEZ barne: 550.000,00 euro. Kopuru horretatik BEZari dagozkio: 95.454,55 euro.
5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
 - b) Behin betiko bermea: kontratuaren esleipenaren ehuneko 5 (BEZik gabe), baldintzen agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.
 - c) Berme osagarria: ez da eskatzen.
 - d) Ordaintzeko modua: ikus administrazio baldintzen orriak.
 - e) Balorazio-irizpideak: administrazio baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.

- f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): aukeran P-1-2
- g) Kaudimen teknikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- h) Kaudimen ekonomikoa: ikus administrazio baldintzen orriak.
- i) Langileak subrogatzea: bidezko da.

6. Agiriak eskuratzea:

Lekua: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>.

- a) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.
- b) Dosierra aztertzea:

Herritarren Segurtasunaren Saileko Trafiko Zerbitzuan aztertu ahal izango dira dosierrak — Agirrelanda kalea, 8, 01013 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161616, 945 161827 eta 945 161541, faxa: 945 161581 —, iragarkia EBAOn edo ALHAOn agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

7. Eskaintzak aurkeztea:

a) Aurkezteko epea: 40 egun natural, EBAOra igortzen denetik kontatuta. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliadunera arte luzatuko da epea. Ondorio horiei dagozkienetarako, San Martineko herritarrei laguntzeko bulegoa itxita dagoen egunak jaieguntzat joko dira —Udalaren web-orriko kontratatzailearen profilean emango da horien berri—.

b) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen orria.

Aurkezteko lekua: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian —Teodoro Dublang Margolaria-ren kalea, 25 behe, 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

e) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

f) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala (administrazio agiriak) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliadun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

C gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen irizpideak baloratzeko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balorazio irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 18an

Herritarren Segurtasunaren Saileko zuzendari nagusia
JOSÉ ANTONIO ANGUIANO AMUTIO